

Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

Temática

Religión, violaciones, verdad

Religión. La película analiza la relación de guerra y persecución entre diferentes comunidades religiosas. La destrucción que se deriva de la incapacidad de respetar unas creencias diferentes a las propias.

Violaciones. En las guerras suelen darse todo tipo de vulneraciones de derechos humanos. En contra de la mujer, y con el objeto de someter a la otra etnia, podemos ver las consecuencias terribles y destructivas que tiene el uso de la violación como arma de guerra.

Verdad. Esta película navega por la complejidad de la verdad, el impacto que ésta tiene en las vidas de los otros cuando ve la luz aquello que había sido guardado en silencio.

Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

...hacia adentro. Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

...hacia fuera. Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

...no solo con la cabeza, también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

...y después de algún tiempo repensar. Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

Algunas preguntas...

...antes de la película

·Sobre la religión: ¿qué es la religión? ¿Quiénes son los inductores de los conflictos que nacen en su nombre? En la historia, ¿son muchos los conflictos violentos derivados de las religiones? ¿Por qué?

·Sobre las violaciones: en las guerras se suelen dar todo tipo de vulneraciones de derechos humanos pero, ¿por qué se han admitido las violaciones como arma de guerra? ¿Qué significa? ¿Qué consecuencias sociales tienen las violaciones?

·Sobre la verdad: ¿en qué nos ayuda conocer la verdad? Muchas veces, ante una verdad terrible, la gente prefiere mantenerse en la ignorancia, por ello, ¿es legítimo obligar a alguien a conocer la verdad, sabiendo que esta le va a cambiar la vida por completo? ¿Qué es la verdad?

...después de la película

·Cuando conocemos la historia de Nawal, le acusan de haber deshonrado a la familia, ¿por qué? ¿Qué consecuencias tiene para Nawal que la alejen de su hijo?

·¿Qué consecuencias tiene en la vida de Jeanne y Simon la entrega de esas dos cartas y el encuentro con la verdad? ¿Qué tiene de positivo para todos conocer la verdad?

·Nawal es conocida por muchos como la mujer que canta. ¿En qué le ayuda cantar? ¿Cómo influye su actitud en los demás?

·¿Por qué la obligan a Nawal a tener los niños? ¿Qué significan estos niños para ella? ¿Cómo puede influir esto en la relación madre-hijo/a?

baketik

Con la colaboración de Eneritz Zabaleta.

Zeurekin eta besteekin bizitzeko zinema

Incendies



Incendies

Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Incendies.

AÑO: 2010.

DURACIÓN: 130 min.

PAÍS: Canadá.

DIRECCIÓN: Denis Villeneuve.

REPARTO: Lubna Azabal, Mélissa

Désormeaux-Poulin, Maxim Gaudette, Rémy Girard, Abdelghafour Elaaziz, Allen Altman, Mohamed Majd, Nabil Sawalha, Baya Belal, Bader Alami, Karim Babin, Yousef Shweihat.

PRODUCCIÓN: PHI Films / micro_scope.

Sinopsis

Nawal Marwan es una emigrante que vive junto a su hija e hijo en Canadá. Durante años ha trabajado como secretaria de un notario. Los últimos días antes de morir, los pasará en silencio. Tras su muerte, junto a la herencia, el notario les entregará dos cartas a Jeanne y Simon (sus hijos). Una, para el padre, supuestamente fallecido, y la otra, deberán entregarla a un hermano del que desconocían su existencia. Jeanne viajará sola a la tierra materna, ya que Simon no quiere atender la petición de Nawal. Finalmente, Simon accederá a ayudar a Jeanne en la búsqueda para poder entregar las dos cartas; en consecuencia, conocerán una terrible verdad.

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

943-25 10 05

www.baketik.org

Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzaerakin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Erlijioa, bortxaketak, egia

Erljioa. Erljio desberdinetako komunitateen arteko jazarpenak eta gerrak aztertzen ditu pelikulak. Hots, bakoitza bere sinesmenetan oinarriturik bestea errespetatzeko gaitasun faltak eragiten duen hondamendia lantzen du.

Bortxaketak. Gerrateetan mota guztietako Giza Eskubideen urraketak eman ohi dira. Emakumeen aurka, eta etnia desberdinen gainetik jartzeko asmoz, gerrako arma modura bortxaketak dituen ondorio latz, gogor eta suntsikorak azter litezke.

Egia. Egiaren konplexutasunean murgiltzen da filma. Pertsona batek bere baitan isildu ditzakeen gertaera desberdinak argira ateratzen direnean, besteen bizitzatan izan dezakeen eragina eta egiaren erabileraren inguruko gogoeta egiten du.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarriketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

·Erljioari buruz: zer da erlijioa? Bere izenean sortzen diren gatazken eragileak zeintzuk dira? Historian zehar erlijioen eraginez eman diren gatazkek asko izan al dira? Zergatik?

·Bortxaketei buruz: gerrateetan mota guztietako bortxaketak egon ohi dira, baina bortxaketak zergatik izan dira gerrako arma modura onartuak? Zein ondorio izaten dituzte gizartearen bortxaketek?

·Egari buruz: zertan laguntzen digu egia jakiteak? Egi gogor baten aurrean jende askok nahiago du ezjakintasuna, beraz, zuzena al litzateke aukerarik eman gabe norbait egiara bultzatzea honek bere bizitza osoa aldatuko duela jakin arren? Zer da egia?

...pelikula ikusi ondoren

·Nawalen historia ezagutzen hasten garenean, familia ohore gabe utzi duela esaten diote, zergatik? Zein ondorio ditu Nawalen bizitzan bere semearengandik urruntzeak?

·Bi gutun horiek eman eta egiaren bilaketa eskatzeak zein ondorio ditu Jeanne eta Simonen bizitzetan? Zertan lagun diezaieke denei egia jakiteak?

·Nawal, La mujer que canta bezala ezagutzen dute askok. Zertan laguntzen dio kantatzeak? Nola eragiten du bere jarrerak besteengan?

·Zergatik behartzen dute Nawal umeak izatera? Zer esanahi dute ume horiek berarentzat? Ama eta seme-alaben arteko erlazioan horrek nola eragin dezake?

Eneritz Zabaletaren laguntzarekin.

Cine para **vivir y convivir**

Incendies



Incendies

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Incendies.
URTEA: 2010.

IRAUPENA: 130 min.

HERRIALDEA: Kanada.

ZUZENDARIA: Denis Villeneuve.

AKTORE-ZERRENDA: Lubna Azabal,

Mélissa Désormeaux-Poulin, Maxim Gaudette, Rémy Girard, Abdelghafour Elaaziz, Allen Altman, Mohamed Majd, Nabil Sawalha, Baya Belal, Bader Alami, Karim Babin, Yousef Shweihat.

EKOIZPEN-ETXEA: PHI Films / micro_scope.

Sinopsia

Nawal Marwan Kanadan, bere seme-alabekin, bizi den emigrantea da. Urteetan zehar notario baten idazkari bezala lanean jardun du eta hil aurreko azken egunak isilik pasa ditu. Bere heriotzaren ostean, notarioak herentziarekin batera bi gutun emango dizkie Jeanneri eta Simoni. Bata, ustez hilda zegoen aitarentzat izango da, eta bestea, existitzen zela ez zekiten anaiari eman beharko diote. Jeannek bakarrik bidaiatuko du amaren jatorrizko lurraldera, Simonek Nawalen eskariari kasurik egin nahi ez diolako. Azkenean, Simonek Jeannekin lan egingo du aitari eta anaiari gutunak helarazteko; ondorioz, guztiek egia latz bat ezagutuko dute.

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

943-25 10 05

www.baketik.org

baketik